

B

BARREN

Plaza Txikia. Izenez txikia, izatez handia

TOKIKOM





Santa Ana kalea, 7
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 011



- **16 URTETIK AUERRERA AZTERKETA TEORIKOA GAINDITZEKO AUKERA**
- **IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**
- **ORDENAGAILU BIDEZ TEST EGITEKO AUKERA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,

BARREN jasotzen duzuenon buzoletan pegatina txiki bat jarriko dugu
Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esaiguzue lasai (943 744 112). Eskerrik asko!



Borja, sanmigeldarron akorduan

21:00ak dira, San Migel jaixetako zapatua. Bart, lehengusu zaharrarekin 4:00ak arte kolunpuxetan pasautako lo-orduak falta orain! Hasi dira Haritz taldekuak nere auzo maittera aillgatzen. “Erropak laga eta azkar frontoira, ensaiua egin biharra dago-eta!”, esan dau indixo jefiak. Betiko dantzari espabilauak frontoiko barran, San Migel bat eskuan debela, barrezka.

Auzokuak izango gara lehenenguak *agurra* egitten, hasiera berezixa izan daixan. Jantzi eta bizkor frontoi aldera. Han, orduko sanmigeldarron dantzarixon jefia zain: Borja zana. “Aupa, Jael. Preparauta? Pixkat berotu egin biharko juagu hankia gora altxatzeko eh?”. Eta nik danari baietz. Bost minuturen faltan, Borjak hankia burutik gora, eta nik arpegira altxatzeko nahikua lan!. “Egunen batian bera bezala altxatu bihar juat ba!”, hitz eman dit neure buruari.

Eta azkenian aillgau da momentua. Indixua hasi da mikrofonotik aurkezpena egitten, eta egingo dittuen dantzak esplikau ostian, pasua eman digu. Baguaz aurrera, frontoia txaloka eta dantzarixok erdi barrezka, erdi lotsauta. Posiziuari jarri eta hasi da musikia. Amama nere aurrian dakat eta hankak dar-dar.

12 urte pasatu dira pentsamendu hórrek izan nittunetik, San Migel jaixetan agurra lehenengoz egin nabonetik. Urte asko, bizipen asko eta aldaketa asko ere bai. Orduko mutiko rubixo ihar haura gizondu da (pixkat bada ere), baiña orduko motibazio eta ilusiorik ez dau galdu. Gaiñera, posible bada, emozio berri bat gehitu jako zapatuko aktuaziuari; nere “jefe” izan zan mutil jatorrari omenaldixa egittiana. Aurten ere zerura begira amaittuko dot jaialdixa.

Neretzako oso berezixa dan ekitaldi hau alde batera lagata, aurten ere han ibiliko gara lanian (lanik ez izatia seinale txarra litzateke-eta) barran, bolatokixan... jendia falta dan lekuan. Inbitauta zerate ba astebukaerako ekitaldixetara, eta nola ahaztu eguazteneko Mikel deunaren eguna! Mezia, bertsolarixak, doinu alaixak eta orain dala hamabi urte kolunpuxetan nerekin zabilen lehengusuaren eta Keparen pelota partidua, *Arribi* eta *Lizaren* kontra. San Migel vs Elgoibar, onenak irabaz daixala!!

Jael Lizundia



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Emozio berri bat gehitu jako zapatuko aktuaziuari; nere “jefe” izan zan mutil jatorrari omenaldixa egittiana. Aurten ere zerura begira amaittuko dot ekitaldixa”



Ni ere banaiz
BARREN!

PAKO IRIONDO
“Lan garrantzitsua egiten du
BARRENEK, eta proiektua hobetzeko
laguntza beharrezkoa dute”



PLAZA TXIKIA

HANDIA BERE TXIKITASUNEAN



Harri jasotzaile baten erakustaldia Plaza Txikian. Jendetza handia batu ohi zen plazan herri kirolak ikusteko.

Plaza Txikia “bizi-bizixa” zen garaiko oroitzenak gogora ekarri eta izenez txikia den plazari merezi duen aitortza emateko, Plaza Txikiko Astea antolatu dute dozena bat elgoibartarrek, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Euren ume sasoiako joko, jolas eta bestelako ekintzak antolatuko dituzte, eta Taupada Antzerki Taldeak umorezko antzezlan bat prestatu du apropos jai hauetarako. Bihar hasiko dira ospakizunak, baina zalantzarik gabe, Plaza Txikiko erretratu zaharren erakusketa izango da egitarauko ekintza nagusia. Astelehenean zabalduko dute erakusketa Kultur Etxean, eta urriaren 3ra arte egongo da ikusteko aukera.

Ainara Argoitia

“Elgoibar bizi-bizixa leloa darabilte orain bazter guztietan, eta halakoxea zen gure ume sasoiako Plaza Txikia ere: bizi-bizixa”, dio Pedro Mari Andonegik. Baietz dio Juan Iriondok ere: “Elgoibarren birika zen”. Plaza Txikian jai eta hazitakoak dira biak, Plaza Txikiko jai batzordeko kideak, eta begiak pizten zaizkie atzera begira jarritakoan. Eskolako arkupeetako harlauzetan sortzen ziren txolotetan kanikak sartzen pasatako orduak, dantzaldiak, kale saltzaileen amaigabeko jarduna, udako afalosteetako ikuskizunak, *señorita* Saturrekin igarotako eskola orduak... Atzo goizeko kontuak balira moduan gogoratzen dituzte. Telebistatik ez zen sasoiako oroitzenak dira, umeak kalean bizi ziren garaioak. “Bi agindu ematen zizkiguten etxean: ‘Ez joan errekarra, eta ez gero trenbidera hurbildu’. Plaza txikia

izaten zen gure jolastokia”, dio Iriondok. Ez da harrizkoa, beraz, Plaza Txikiak omenaldi bat merezi duela esatea. Pentsatu eta egin. Plaza Txikiko Astea antolatu dute 60-65 urteren bueltan dabilizan dozena bat lagunek, eta 200 erretratu zahar baino gehiago batu dituzte, herritarren laguntzarekin.

Bizilagunek egin dute handi Plaza Txikia. Badira izen batzuk, adibidez, Plaza Txikiko umeek nekez ahaztuko dituztenak. Tomas Zubizarreta, esate baterako. “Medikua zen, eta berak ekarritakoak izango gara elgoibartar asko. Hark, bai, merezi duela plakatxo bat edo zerbait”, dio Andonegik. 1942an-edo omenaldiren bat egin zitzaiola gogorarazi dute jarraian, baina Zubizarreta medikua udako afalosteetako komediekin lotzen dute garbier: “Hantxe egoten zen, beti lehenengo ilaran”,

gehitu du. Mujikaneko Maritxuren [Maria Suarez izen-abizenek] etxean igarotako orduak ere ondo gogoan dituzte biek ala biek. “Geure etxean moduan ibiltzen ginen han, kanpoan euria ari zuenean. Umeentzako komikiak, kanikak, txapak... denetarik izaten zen han”, bota du Iriondok. Bistan da umetan ere estimutan zutela. “Zenbat aldiz apurto ote genuen Mujikatarren etxeko leihoa baloiarekin, eta sekula ez zigun errietarik egin”, oroitu du Andonegik. Okerragoa izaten zen baloia Barrutianeko ortura jausten zenean. Bi-hiru txakur baziren han, baina baten izena ondo gogoan du Juan Iriondok behintzat. “Nick. Gogorra zen hura”

Jose Murua kalera kafea txigortzera irtetzen zenean Plaza Txikiak hartzen zuen usaina ere barru-barruraino sartu zitzairen han hazitakoek. Berdin eskola ondoko Alondegiaren bueltan izaten zen ardo usaina ere. Alondegitik bertatik saltzen zituzten olio eta ardoa Elgoibarko denda eta tabernetara. “Kupel demasak jartzen zituzten Plaza Txikian, eta han ibiltzen ginen umeok bueltan, zirri honi eta zirri hari. Behin ia mozkortu zen mutil kokkor bat han. Kendu zion kortxoak kupelari, sartu zuen fideoen antzeko lasto luze bat, eta zurrut eta zurrut, ia mozkortu zen hantxe”, kontatu du Iriondok.

Plaza txikiko familia handia

Euren umetako Plaza Txikia begi aurrean balute moduan deskribatzen dute han hazitakoek. Pedro Muguruza zenak diseinatutako *Etxe Berrietatik* hasi –Caixa Catalunya dagoen eraikina– eta Barrutianeko paretera arte –Leku Eder aldean zeuden ortuetako horma–, eta handik, zerka zaharretik –Armuetaneko kailejoia–, Mujikatarren etxeraino. Bizi oso bat, lauki luze batean. Alondegia, harraska publikoa, Mujikatarren fundizioa, lurpeko komun publikoak, Maritxu *Mujikaren* sukalde, Agarretxiki, Murua, *Binoterokua* gozo-denda, Serenokuan saltzen zituzten kandela eta argizarizko figurak...

“Iturria dagoen pare horretan zeuden lehen komunak, lurpean. Aberatsen etxeren batean izango zen, beharbada, baina bestela ez zen bainuontzirik izaten etxeetan, eta hara joaten zen jendea. Ez zen oraingo konturik, hala ere. Garbienak ere, astean behin joango ziren!”. Gogoan dauka pezeta batean saltzen zutela txanpua euren dendan, eta toalla bizkarrean hartuta joaten zirela bainua hartzera apopilo asko. Gehienek, baina, etxean hartzen zuten garbitua, “sukaldeko fregaderan”. Harraskak izaten ziren etxeetan ere,



baina urik ez beti, eta Alondegiaren eta Mujikatarren fundizio bitartean zeuden harraska publikoan garbitzen zituzten arropak emakume askok. “Neguan ez zen arazorik izaten, baina uda sasoiari, adibidez, iluntzean iristen zen ura gure etxera”.

Elgoibartarrek lagatako dozenaka erretratu zaharrek oroimena freskatzeko ere balio izan diete Plaza Txikian bertan bizitakoek. Horietako argazki zahar batek umetan futbolearen aritzen ziren lekuan lurpean zegoen gurutze handia gogorarazi die, eta gurutzeak, eskola. “Franco, Jose Antonio de Rivera eta gurutzea. Haiei begira jartzen ginen eskolan. Hura zen orduko gure mundua”, dio Iriondok. Eskolan erdaraz, eta kalean ere halatsu. “Baserritarren semeek kristau ikasbidea euskaraz egin zuten, baina guk, kalekook, hori ere erdaraz”, nabarmendu du Andonegik. Asko dira eskolarekin lotutako oroitzapenak.

Jai giroan

Bizixa. Plaza Txikia zerbait baldin bazen horixe zen: bizia. Hilero-hilero ganadu feria egiten zen. “Demaseko feria”. Eta jai izendatuetan, dela Trinitateen bueltan edo gabon zahar feria inguruan dantzaldiak ere egiten ziren. “Lau musika talde ere izan dira aldi berean jotzen, jazban eta guzti”, ekarri du gogora Andonegik. Zalantzarik gabe, baina, uda sasoiari hartzen zuen bizitasun handiena Plaza Txikiak. “Ikusgarria izaten zen San Joanetan egiten zen sua!”, gehitu du Iriondok. Gogoan dauka nola ibiltzen ziren egur eta kartoi pusketak batzen, sua pizteko.

Komediak ere izaten ziren, eta sekulako jendetza batu ohi zen ikuskizun horietara. Lehen, noizean behin baino ez ziren irteten afalostean kalera, eta komediak aitzakia ona izaten ziren horretarako. Etxetik aulkia hartu eta plazara! Titiriteroak, folklore dantzak, pailazoak, bi hankaren gainean dantza egiten zekien txakurra... denetarik izaten zen, eta amaieran, errifaren zozketa. Likorak, ardoak, oherako estalkiak... zozketatzen zituzten. “Baita sekula tokatzen ez zen bizikleta ere!”, azpimarratu du Iriondok.

Sanbartolomeetan ere ikusmira handia izaten zen Plaza Txikian. Goiko Plazan (Plaza Handia) jokaten ziren pilota partidak, baina gainerako herri kirol eta ospakizun guztiak Plaza Txikian egiten ziren. “Barrakak, zezen enbolatuak, zirkoa... beti izaten zen zerbait”. Andonegik eta Iriondok gogoan dute zirkoan leopardo bat hil zeneko eguna ere. Era berean, akorduan dute plazan bertan kapatzen zituzten txerriek ateratzen zituzten kurrinkak ere. Zalaparta handiko plaza zen orduan Plaza Txikia, baina “amatatu da orduko bizitasuna”. Aparkalekuak jan du Andonegi eta Iriondoren garaiko umeen jolas-tokia, baina orduko oroitzapenei bizi eusten diete Plaza Txikiko jai batzordekoek. Bizi-bizi.



Anton Zubiaurre Artetxe

Bizitzan beti aurrera begiratzea aholkatzen zaigu. Gaur, Plaza Txikiaren inguruan ospatzear ditugun jaiak direla-eta, salbuespen bat egingo dugu, eta bertan jaio eta bizitzeko zortea izan dugunok garai bateko ohiturak, oroitzapenak eta giza-harremanak ekarriko ditugu gogora.

Plazako erromeria, festa, joko, jolas, antzerki, zirko, zezenketa eta feria ugariaren lekua izan da.

Etxeetako ateak zabalik egoten ziren beti, eta haurrak lasai asko aritzen ginen jolasean. Etxe eta pertsona guztiak izendatzea zaila da, baina batzuek aipatzea beharrezkoa da. Maritxu Mujika, esaterako, bere sukalde eta galerian ikasten genuelako oinez eta berbertan. Ezin ahaztu, era berean, Eulaliak bigarren pisutik botatzen zizkigun galletak ere. Ezta Nikolas alpargaterua ere, aho zabalik inguruan biltzen gintuena.

Txikitatik garatzen genituen gastronomia hastapenak. Murua etxekoak bonbak eta pastelak, batetik, eta Intxausti harategiko odolosteak, bestetik...

Neska-mutilek astialdeaz gozatzeko zuten modua aparta zen: txapetan, kaniketan, sokasaltoan, kromoetan, futbolearen eta borroketan, txorro-morroka, goiti-beheretan, ezkuktetan...

Udako gauak bereziak izaten ziren. Ederrena San Juan gaua izaten zen. Ekain osoa pasatzen genuen adarrak eta kartoiak biltzen. Makina bat lagun elkartzen zen Plazako suaren inguruan!

Udan, "komediak" giro ederra sortzen zuten. Irrikaz egoten ginen noiz hasiko. Ikaragari disfrutatzen genuen ikuskizunarekin.

Egiten ziren ganadu-feriek entretenimendu handia ekartzen zuten gurera: tratuak, saltzaileak, bertso-paperak, berritsuak (txarlatanak)... Azken horien trebetasuna ikaragarria zen; beti gauza berdinak esan eta salduagatik, maiz lortzen zuten gu liluratzea.

Urteko festak iristeko desiatzen egoten ginen: *tiobiboak*, barrerak, zezenetako hondarra, txurreria, *tiropitxoiá*... Etxeetako galeriak, esate batarako, jendez betetzen ziren zezenak ikusteko: bertakoak, familiakoak, lagunak, lagunak...

Plaza Txikian jaio eta bizitzeko pribilegioa izan dugunok ez genuke inoiz garai hartako istorio eta oroitzapenak kontatzen amaituko. Badakigu plazan bizitako pasadizo eta istorio guztiak gure bizitzan garrantzitsuak izan direla, baina datozen ospakizunek berriro aurrera begira ipini behar gaituzte. Elkartasun eta laguntasunez goza ditzagun datozen festak, eta zuri, Plaza Txikia, eskerrik asko zure babesean berriro onartzeagatik!



PLAZA TXIKIKO ASTEA

IRAILAK 25, ZAPATUA

12:00 Txarlata. Mingorance kale saltzaile berriaren jardunaldia.

IRAILAK 30 EGUENA

18:00-20:00 Antzinako joko eta jolasak (futbola, bizikleta lasterketa, banderak, txapak, kaniak, kromoak eta primerak).

URRIAK 1, BARIXAKUA

22:00 Komediak oroimenean: bailaorak, fakkirra, pailazoak, magoa, musikariak eta malabaristak. Eta nola ez, zozketa. Etxetik aulkia eramatea gomendatzen dute, garai batean moduan.

18:00-20:00 Antzinako joko eta jolasak (futbola, bizikleta lasterketa, banderak, txapak, kaniak, kromoak eta primerak).

URRIAK 2, ZAPATUA

11:30 Plaza Txikiaren omenezko meza.

12:30 Bilkura, Plaza Txikian.

14:30 Lagunarteko bazkaria.

IRAILAREN 27tik URRIAREN 3ra arte

Plaza Txikiaren erretratu zaharren erakusketa, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Astebarruan: 19:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta domeketan, 11:00etatik 14:00ak arte.

Urriaren 2ko bazkarirako izena eman nahi duenak 19 euro sartu beharko ditu ondorengo kontu korrante honetan:

Euskadiko Kutxa: 3035 0007 28 0071119160

Oharra: 75 urtez gorakoentzako bazkariak zazpi euro balioko ditu.



Eskailera mekanikoen inguruan zikinkeria asko botatzen du jendeak lurrera: “Jende askok zaborra botatzen du eskailera mekanikoetatik behera, eta ondorioz, eskailera mekanikoen inguruan zikinkeria asko pilatzen ari da. Urasandiko eskaileretan, behintzat, inguruko berdegunea zikinkeriaz beteta egoten da askotan. Okerrena da eskailera mekanikoak amaitzen diren lekuan badagoela zakarrontzi bat. Herria txukuntzeko lan handia egin dute azkenaldian, eta herritarrok ere badaukagu zeregina horretan. Elgoibar garbi eta txukun mantendu behar dugu denon artean”.



Mintxetako gimnasioa eguerdian itxita egoten da: “Mintxetako gimnasioa itxita egoten da eguerdian. Lanean dagoen jende askok gustura egingo luke kirola eguerdikoa tartetarako, eta eskertuko genuke eguerdikoa orduetan ere zabaltzea. Badakigu kiroldegiko gimnasioa zabalik egoten dela, baina hango makinak oso zaharrak dira. Bide batez, makina horiek berritzeko ere eskatu nahi nieke arduradunei”.



Txalo bat Txankakua merkataria eta zerbitzu elkarteari: “Aurten ere polita izan da Txankakuaren feria, eta antolatzaileek txalo bero bat merezi dute. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta Plaza Handiak denda erraldoi bat zirudien. Produktuak ikusi eta eros-teko aukera bikaina eskaini zuten, eta oso gustura ibili ginen. Umeentzako txu-txu trenak ere arrakasta handia izan zuten. Horrelako ekimenak oso egokiak direla iruditzen zait, herriko merkataritzari bultzada emateko”.



Zuen kezak, gaidetarak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarzarra.com 943 744 112



I. URTEURRENA

ANE PEREZ ALBERDI

1990-08-23 / 2009-09-23

*Garenak ere geroan
bizirik iraunen baitu gudan,
ez naiz guztiz itzaliko
edukiko nauzue beti zuengan.*

Etxekoak, eta etxeko lagunak



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.


Udalbiltza aske!

Udalbiltzaren aurkako epaiketa aurrera doa, eta frogak aurkezteko fase bete bete an aurkitzen gara. Aspalditik genekiena argi gelditzen ari da: Udalbiltza ETArekin lotzen duen frogarik ez da inon ageri. Frogak aurkeztu behar zituzten polizia edo agertzeari uko egin diote edo ez omen dute ganoraz gogoratzen txostenetan idatzitakoaren funtsa. *Egunkariaren* aurkako auzian bezala funtsik edo logikarik gabeko epaiketa baten aurrean gaude, baina desberdintasun pare batekin. Oraingoan fiskalak ez du atzera egin, eta bizi dugun momentua desberdina da oso. Izan ere, Euskal Herrian askorentzat itzaropenerako aroa den honetan, estatuak bere gerra estrategia urrats bat gehiago ematea bila deza-keela uste dugu.

Kontrako epai batek Udalbiltza moduko tresnak antolatzeke eskubidea ukatuko liguke euskal herritarroi, eta Udalbiltzak berak, oso denbora gutxian erakutsi zuen zein neurriko ekarpena egiteko gaitasuna duen: bai Xiberoa garatzen ekimenarekin, bai EHNAren ekimenarekin eta baita beste hainbat ekimenekin. Estatu berehala jabetu zen horretaz. Auzipetuekiko elkartasuna azaltzetik haratago, herri bezala honelako zein beste hamaika eratako instituzioak sortzeko daukagun eskubidea aldarrikatu nahi dugu guk eta haratago oraindik, eskubidea baino gehiago, beharra ere badugula uste dugu guk.

Pausoak bat eginda emateko garaia dugu hau, elkarrekin bidea marraztekoa, baina batez ere ekiteko momentua dugu,

Udalbiltza sortu zen momentuan, askotari-ko milaka zinegotzik egin bezala. Igandean, irailaren 26an, Bat Egin Eguna izango da Altsasun. Udalbiltzako auziperatuei elkartasuna adierazteko zein eskubide politiko eta sozialen alde biltzeko aukera ezinhobea. Egun osoko egitaraua izango da: Pirritx eta Porrotx, Kukubiltxo, kale animazioa, bazkaria, taloak, sardinak, Esne Beltza, Izargi... Autobusa izango da hara joateko, 9:00etan Txankakuako zubian. Izena eman ahal bezain laister!. Bertan elkar ikusiko dugulakoan.

Iñaki Odriozola, Itziar Ibabe eta Iñaki Bengoetxea zinegotzi independentistak 

Eskutitzei BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Angel Ugarteburu



Andres Alberdi

Z e handia hazi hazitzen! Ezagutu ere ez haut egin! Hala-ko asko entzun eta esan ere egin jituagu geure bizitzan, Andres. Behinola gure ikasle izanda-

ko batek kasu egin eta gu, begiak zorrozuta, ezeroso, nor den asmatu ezinik geratzen garenean, esaterako. Egunero ikusten ohitu garenekin ez dok halako ustekaberik. Hurbilekoen aldaketak ia oharkabeen izaten dira, egunero ispiluan ikusten dugun geure buruarena, batez ere.

“Herritarren barreneko zerbait dok BARREN, ostiral arratsean ikusi genuenez”

Aurreko ostiral arratsean kultur etxearen aurrean BARRENEN sostengurako egindako batzarrean etorri jatan esku-eskura gaurko aururako gaia: 18 urteko ibilbidearen ondoren koxkondua zegoela 1992an sehaskan kullunkatu genuena.

Hurbilekook ez gaituk ia konturatu ere egin, baina 18 urte hauetan herritik kanpo egon den batek egingo likek harridurazko espanturen bat, ziurrenik. Zenbat eta zenbat herritar nagusi alfabetatu diren herriko aldirikari honi esker! Zenbat eta zenbat adineko, gazte eta umek hartu duten parte bertan! Herritarren barreneko zerbait dok BARREN, han ikusi genuenez.

Kontu honek zer pentsatua ematen jok, gure bizitzako beste arlo batzuetarako ere. Gauzak azkar eta ondo egin nahi jituagu eta emaitzak bat-batean ikusi. Zaila dok hori, ezina ez esatearren. Inozo ez, baina baikor izatea komeni dok eta geure lorpen txoak handiki ospatu, geure eta herriaren osasunaren mesederako. Gure mugak onartuz, eginbeharrak ondo egin dituenaren lasaitasunez oheratu behar joagu gauero, goizean ispiluk komeni den baino zimur gehiago erakutsi ez dagian.

Halaxe duk, Angel. Handi hazi duk BARREN. Atzo jaio zelako ustean, eta dagoeneko 18 urte alajainkoa! Sehaska-garaiak ondo urruti geratu zaizkiok. Bizitzaren legeari ezin eskapo egin, eta aldirikari hau ere denboraren gurpilean aurrera zoak. Osasuntsu joan ere, gainera, eta, joan zen barrikuan ikusi zen bezala, lagun ugari inguruan dituela egin ere. Bazegok motiborik, bai, gogobeteta egoteko.

Ez gaitzen itsutu, ordea. Umeak hazi, nekeak ere hazi, zioak eskal esaera zahar batek. Eta gaztetu den gaztetxoak 18 urterekin bizitzako proiektu handi, berri eta zailagoetan sartu beharra izaten duen bezala, eta horietatik ikasi, BARRENEN ere antzeko trantze batetik ea ondo irteten duen desiratu behar diagu.

Gerria estutzeko garaian gaudek, besteek eragindako krisi mapartatu hau dela eta. Eta txarrena duk horren itzala gainean duela BARRENEN ere. 18 urtera iritsi baino lehenago isildu dituk inguruko herrietako hainbat aldirikari, eta guk ez diagu nahi horrelakorik BARRENENTzat.

“Orain artean bezala, euskara ardatz, ziur asmatuko dugula”

Jada nagusi (18 urte!), erantzukizuna ere nagusi bati dagokiona eskatu behar. Erronkei iskin egin gabe, gerora begira, garaia duk BARRENEN ere orain arte barrutik kanpora planteatu ez diren galdera korapilatsu eta labain batzuen inguruko hausnarketa egiteko parada hartzea: BARRENEN doakoa izan behar al du?, Doakoa izanik, irabazi ala galdu egingo du?, Bonoekin bakarrik konponduko al da diru-arazoa?, Tiradaren neurrikoa al da irakurleen kopurua, ala ale asko alferrik galtzen dira?, Herri-sektore guztietara iristen al da aldirikaria?, Nahikoa berritzen al da aldirikaria?, etab.


Orain artean bezala, euskara ardatz, ziur asmatuko dugula!



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Ehunka moto zale bildu nahi ditu Skull's Riders taldeak asteburu honetan Elgoibarren

Borja Uzuriaga errepide istripuan hildako sanmigeldarra omenduko dute zapatuan


Azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, moto zaleen kontzentrazioa antolatu du Skull's Riders taldeak astebururako. Zapatuan hasiko dituzte ospakizunak, Borja Uzuriaga errepide istripuan hildako sanmigeldarrari egingo dioten omenaldiarekin. 2008ko martxoaren 1ean hil zen Borja Uzuriaga, eta haren omenez, Skull's Riders taldekoek lore eskaintza bat egingo dute Aiastia-San Migelgo gazteak istripua izan zuen lekuan. Handik, Aiastia auzoruntz joko dute moto gidariak, eta goian geldialditxo bat egingo dute, auzoa jaietan dagoela aprobetxatuta.

Arratsaldean, 19:00etan, haurrentzako eskulanak izango dira Leku-Ederren. Era berean, umeentzako molto lasterketa bat ere antolatu dute. Tarte hori, Bizkaia aldera irteera bat egiteko baliatuko dute moto gidariak, eta afaltzeko batuko dira berriz guztiak, Leku-Ederren jarrita dagoen karpan. Ondoren, Señor Maligno taldearen kontzertua izango da Madalan, baina dantzatzeko musika ere izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Gaua ikastolako frontoian igaroko dute.

Domeka goizean beste irteera bat egingo dute, Markina eta Ondarroa aldera, eta eguerdian itzuliko dira berriro Plaza Txikira. Antolatzaileek ehunka moto gidari biltzea espero dute. Ikuskizuna ziurtatuta dago, beraz, Plaza Txikian.



Txakurren erakustaldi arrakastatsua Altzolan



Txakurrek sekulako erakustaldia eman zuten domekan Altzolan. Ondo erakutsita, edozer egiteko gai direla erakutsi zuten jendetza handiaren aurrean. Ikusleekin futbolekin jokatu zuten, eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen nola lagundu dakiekeen erakutsi zuten. Ateak zabaldu, erropak erantzi, eskatutako gauzak ekarri, erasotzaileengandik babestu... Argi gelditu zen txakurrek laguntasun handia eman dezaketela.

Makinen karenatuari buruzko ikastaroa MEKA Institutuan

Elgoibarko MEKA GLHBI Institutuak makinen karenatuaren diseinuari buruzko ikastaroa antolatu du, karenatuaren diseinuko teknikari-perfila sortzeko eta perfil horretako beharrak asetzeko. Ikastaroa diseinatzeko orduan MEKak Tres-D eta Ibarmia enpresen lankidetzan izan du. Horiez gain, baina, Kalman S.A. eta Siemens enpresek ere parte hartuko dute ikastaroa emateko orduan. Era berean, proiektu honek ondorengo enpresen babesaren ere izan du: DanobatGROUP, Correaanayak S.A, Kondia S.A., Egondo, S.A. eta Teknikalde S.A..

Formakuntza orokor bat emango dute hasieran, materialak, transformazioa, material komertzialak eta akaberrak landuz, eta ondoren, Makina Erremintaren Diseinu Industrialak ikasiko dute izena ematen dutenek. Ezagupekin praktikan jartzeko, ikasleek zailtasun desberdineko hiru proiektu egingo dituzte, eta ikastaroa bukatutakoan, praktikak egin ahal izango dituzte enpresetan. Ikastaroa 400 ordukoa izango da, eta eskolak arratsaldean izango dira. Interesatuak Lanbiden eman dezakete izena. (Elgoibarko bulegoa: 943 744 425).

Lekua **Antonio Arrillaga kalea**



Bukatu dituzte Antonio Arrillaga kaleko obrak. Espaloiak eta zoria berritzeaz gain, oztopo arkitektonikoak kendu dituzte, eta zeregin horretarako, ia 300.000 euroko aurrekontua izan du Aika enpresak. Antonio Arrillaga kaleari beste itxura bat eman nahi izan diote, era horretan inguru horretako merkataritza sustatzeko. Era berean, Ubitarte ingurua berritzeko obrak hasi dituzte.

Irudia **Txankakuaren azoka**

Txankakuaren urteroko feriak kalera atera zituen merkatariak zapatuan. Duela hamar urte hasitako ohiturari jarraituz, elkarteko kideek hamalau postu atondu zituzten, euren produktuak erakutsi eta saltzeko. Alabaina, produktuak saltzeko baino gehiago herritarren eta saltzaileen arteko harremana sendotzeko, eta merkataritza txikiek herrian duten garrantzia aldarrikatzeko jardunaldia izaten da Txankakuaren feria. Eguraldia lagun, jende asko ibili zen azokan, eta Txu-txu trenak ere jendetza handia erakarri zuen. Urtero legez, ikusmin handiena, baina, zozketak piztu zuen. Ehun euroko sei erosketara txeke zozketatu zituzten, eta beheko irudian dituzue irabazleak: Begoña Gorriti, Ikuska Barua, Marisol Arakistain, Antonio Ballesteros, Aitziber Ondarra eta Boni Rodriguez.



Mendaroko ludotekan izena emateko epea, zabalik

Asteartetik aurrera eskuragarri izango dira matrikula orriak ludotekan bertan. 4 urteko gelan dauden haurrengandik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako zabalduko dute ludoteka, eta urteko kuota, irailetik ekainera artekoa, 40 eurokoa izango da. Urtarrietik aurrera apuntatzen direnek, berriz, 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta maiatzetik ekainera izena ematen dutenek, hamar euro. Bestalde, familia ugariaren txartela aurkezten dutenei %30eko deskontua egingo zaie. Informazio gehiagorako: ludomendaro@hotmail.com.

Lizarrara irteera antolatu du Elgoibarko jubilatuen egoitzak

Urriaren 6rako, Lizarrara irteera antolatu du Elgoibarko jubilatuen egoitzak. 8:15ean irteera Plaza Handitik, eta bidean hogeita minutuko geldialdia egingo dute, indarra hartzeko. Ondoren, Los Arcoseko zirkuitoa bisitatuko dute, eta handik Lizarra ikustera joango dira. Iratxe-ko Andia hotelean bazkalduko dute 14:00ak aldera, eta bazkalostean zozketa, bingoa eta dantzaldia izango dituzte. Irteera horrek 33 euro balio ditu jubilatuen egoitzako bazkide direnentzako, eta 36 euro, bazkide ez direnentzako.

Izena emateko azken egunak Udal Euskaltegian

Laster amaituko da izena emateko epea Udal Euskaltegian. Aste-an bi, hiru eta lau eguneko klaseak eskainiko dituzte, baita autoikas-kuntza ere. Maila guztiak emango dituzte, eta hainbat agiri lortzeko prestakuntza eskainiko dute: Osakidetzako eta IVAPeko perfilak eta EGA, besteak beste. HABEren eta Elgoibarko Udalaren laguntzari esker, prezio bereziak jarri dituzte langabetu, guraso, ikasle eta jubila-tuentzat. Informazio gehiagorako: 943 742 731.

Leku publikoetan erretzea debekatuko dute urtarriletik aurrera.

Tabakoaren Legea beteko dela uste duzu?



Encarni Migales
42 urte, ileapaintzailea

Zaila izango da, baina Europako beste herrialdeetan bezala, hemen ere ohituko gara. Legea bete egin beharko dugu. Ni ez naiz erretzailea, baina lege hori gehiegizkoa iruditzen zait. Erretzaileak gaizkileak balira bezala hartzen ditu. Zergatik ez dio-te tabakoa saltzeari uzten?



Koldo Leibar
67 urte, jubilatua

Oso zaila izango dela uste dut. Hasieran, batez ere, legea betetzea kostatu egingo dela iruditzen zait, baina poliki-poliki ohitu egingo gara. Ni ados nago lege horrekin, eta tabernetan ez erretzeak mesede egingo digu, bai bezeroei, eta baita tabernariei ere.



Juan Albarran
68 urte, jubilatua

Ez da erraza izango, zelatari lanak egin behar dituenarentzat, bereziki. Europako zenbait herrialdetan lortu dute, baina hemengo kultura desberdina da. Ni erretzailea nintzen, baina laga nuen. Bizitzan egin ditudan gauzarik onenak ezkontzea, alabak izatea eta erretzeari lagatzea izan dira.



Jose Mari Urbieta
70 urte, jubilatua

Zaila ikusten dut. Lehen ere saiatu ziren, baina gutxiak bete dute legea. Ni legea betetzearen alde nago, denon mesederako izango delako, baina tabernariak ez dute ahalegin handirik egingo. Lehengo aldean gutxi erretzen dut orain, eta, gainera, leku itxietan erretzea ez zait gustatzen.

ESKERTZA

NATALIA ANTOLIN ANDRES

2010ko irailaren 21ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

“Betiko bakea eta zoriona heldu da zure barrenera”



ESKERTZA

JOSE MARI ZABALA SALEGI

2010eko irailaren 15ean hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Uztailan eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Nahia Lopez Saborido
Uztailak 12
Francisco eta Adela



Lier Juaristi Vifaras
Uztailak 19
Joseba eta Ainhoa




Eneko Arrizabalaga
Loiola Abuztuak 16
Iñaki eta Judith



Eneko eta Manex Iglesias Fernandez
Gaizka eta Lierni
Abuztuak 19



Lore Fernandez Elizagirre
Abuztuak 16
Juan Carlos eta Idurre



Nora Orbea Gastesi
Abuztuak 21
Josu eta Claudia



Ortz Rodriguez Aguayo
Abuztuak 23
Evaristo eta Gloria

Rayan Berrabibi
Uztailak 5
Mohamed eta Rachida

June Arriaga Mujika
Uztailak 2
Abel eta Eider

Saioa Melgar España
Uztailak 7
Reny eta Dolores

Aitana Luke Garcia
Uztailak 15
Miguel eta Cristina

Fatima Chaouadui
Uztailak 16
Mohammed eta Mouia

Terese Guenetxea Zabala Uztailak 21
Josu eta Ane

Irene Toledano Fernandez Uztailak 16
Jose Luis eta Ana

Lea Lazarobaster Heras
Uztailak 16
Iñaki eta Paula

Oier Sanchez Gimeno
Uztailak 27
Iñaki eta Nerea

Unax Segundo Gonzalez
Uztailak 27
Alberto eta Aroa

Maier Amutxastegi Yarza
Abuztuak 5
Iker eta Leire

Maren Peñia Apraiz
Abuztuak 15
Jorge eta Arantza

Naiara Jorge Castro
Abuztuak 17
Jose eta Amaia

Mauricio Justiniano Jimenez Abuztuak 20
Jorge eta Maria Olivia

Anartz Mora Cuadrado
Abuztuak 28
Egoitz eta Cristina

EZKONDUTAKOAK

- David Mekolalde eta Laura Pampin Uztailak 10
- Miguel Angel Martinez eta Amaia Plaza Uztailak 16
- Gorka Garate eta Jasone Osoro Uztailak 24

HILDAKOAK

- Eduardo Martin Santos • 68 urte • Uztailak 1
 Dionisio Miguel Rodriguez • 73 urte • uztailak 9
 Carmelo Martin Alonso • 84 urte • Uztailak 20
 Luz Fernandez del Rey • 92 urte • Uztailak 20
 Juliana Guinea Camara • 76 urte • Uztailak 23
 Begoña Juaristi Arriola • 77 urte • Uztailak 26
 Alejandro Pascual Garcia • 77 urte • Uztailak 28
 Juanito Gorostiza Garate • 84 urte • Uztailak 30
 Paula Gallastegi Urizar • 94 urte • Abuztuak 2
 Miguel Maria Loiola Vallejo • 77 urte • Abuztuak 16
 Jose Angel Etxaniz Arrillaga • 40 urte • Abuztuak 17
 Arantza Bilbao Jauregi • 55 urte • Abuztuak 22
 Jose Luis Azkonizaga Aranburu • 73 urte • Abuztuak 29
 Pedro Gonzalez Barragan • 88 urte • Abuztuak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA

**KUTXAK
 TRASLADOAK
 KOROAK**

**NORBANAKOEI
 eta
 KONPAINIEI
 zuzenduriko
 zerbitzuak**

**Erietxe
 zentruetan
 zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
 (Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

Gu ere bage



ara **BARREN!**



Zer moduz pasatu dituzu oporrak?

Oso ondo. Urtero bezala, Culleran (Valentzia) eta Zumaian pasatu ditut. Berehala pasatu da uda.

Pozik ekin diozu ikasturte berriari?

Bai, baneukan ikastolan hasteko gogoia. Jaiak amaitu zirenetik, aspertuta nengoen. Lagunak ikusteko gogoia neukan.

Zein da gehien gustatzen zaizun ikasgaia? Eta, gutxien?

Ingurunea eta hizkuntzak gustatzen zaizkit gehien. Ingelesa, gaztelania eta euskara gustatzen zaizkit. Gutxien, berriz, matematika.

Irakurri duzun azken liburua?

Los Flood en el colegio. Fantasiatzko eta beldurrezko liburua da. Asko gustatu zait.

Hitz egitea ala entzutea gustatzen zaizu gehiago?

Hitz egitea.

Zein da asteko egunik onena?

Larunbata, lagunekin berandura arte ibiltzen naizelako kalean. Gainera, ikastolara joan behar ez dudanez, nahi dudanean jaikitzen naiz.

Nagusitan zer izan nahiko zenuke?

Ez daukat oso argi, baina nire aitaren enpresan lan egitea gustatuko litzaidake.

Donostiako zinemaldia hasi da. Gustatzen zaizu zinea?

Bai. Harry Potter bezalako pelikulak gustatzen zaizkit.

Elgoibarko alkatea bazina, zer egingo zenuke?

Mintxeta oso urruti dago, eta askotan haraino joateko gogorik ez dugu izaten. Herritik gertuago jarriko nituzke igerilekuak.

Zerk beldurtzen zaitu? Gauzez etxean bakarrik egotea ez zait gustatzen. Conan detektibea telesaila ikusten dut askotan, eta hildakoak egoten direnez, beldurtu egiten naiz.



Jaia

Piraten jaia

Atxutxiamaikea aisialdi taldeak Piraten jaia antolatu du biharko. 11:30etik aurrera umeentzako tailerrak, ipuinak eta jolasak egingo dituzte Plaza Handian. Antolatzaileek pirataz jantzita joateko deia egin diete umeei.



Zein da zuretzako munduko pertsonarik garrantzitsuenak?

Unax Lauzirika

6 urte

Aitatxo, berak konpontzen didalako jolasteko makina. Durangora eramaten du, eta han konpontzen dute. Bigarren inportanteena amaxo da, bera joaten delako erosketak egitera eta txutxeak ere erosten dizkidalako.



Nora Mujika

5 urte

Etxeok dira garrantzitsuenak. Nik ez dakit janaria prestatzen eta eurek egiten dute. Ahizpa txiki bat ere badaukat, eta hori ere oso inportantea da, jolasteko. Familiako pertsona guztiak dira garrantzitsuak.



Nora Barrenetxea

6 urte

Nire lagunak dira garrantzitsuenak. Lagunik gabe aspertu egingo nintzateke. Ezkutaketetan jolasten dugu, eta oso ondo pasatzen dut. Bartzutan Debara joaten naiz amama bisitatzera, eta han ere badaukat lagunak. Lagun asko ditut.



Unai Arregi

6 urte

Nire anaia. Lehen ez neukan anaiarik eta aspertu egiten nintzen. Bera txikiagoa da, 2 urte ditut, eta nik erakusten dizkiot gauza berriak. Formala da, baina purrea jatea ez zaio gustatzen, eta ohera joaten denean negar egiten du.



Unax Aseginolaza

6 urte

Nire arreba. Oraindik txikia da, eta nik zaintzen dut. Berak badaki puzzle batzuk egiten, baina beste batzuekin nik laguntzen diot. Ez dakizkien gauzak egiten erakusten diot. Apur bat bihurria da, baina nahi duenean formal egoten da.



Ion Maiztegi

6 urte

Olentzero. Bera ez balitz egongo umeak ez lirateke ondo portatuko. Ni formala naiz, eta opari asko jasotzen ditut. Aurten Renfe tren eskatuko diot. Nire gelatik amaren logelara arteko tren luzea nahi dut.



Bilboko Musika Bandak kontzertua emango du, Elgoibarko Musika Bandaren 125. urtemugako ospakizunen barruan

Bihar izango da kontzertua, San Bartolome parrokian, 22:00etan

Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurreneko ospakizunekin bat eginez, Bilboko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du, bihar, irailaren 25ean, San Bartolome parrokian, 22:00etatik aurrera.

Urte guztian zehar antolatuta dute Elgoibarko Udal Musika Bandak 125. urteurrena ospatzeko ekintzak: bandaren historia jasotzen duen liburuaren aurkezpena, erakusketak, bandera berriaren aurkezpena, baina, batez ere, kanpoko goi mailako bandak ekartzen egin du ahalegina. Herbehereetako, Portugalgo, Bergarako eta Irungo Bandek jo dute San Bartolome parrokian, besteak beste, eta, bihar, Bilboko Udal Musika Bandaren txanda izango da.

1.895. urtetik gaur arte


Bilboko Udal Musika Banda 1895. urtean sortu zen, Elgoibarkoa baino hamar urte geroago, hain zuzen ere. Makina bat ekitaldi ofizialetan eta herri ospakizuetan jo dute, eta aipatzekoa da, era be-



rean, Areatzako kioskoan udaberri aldera eskaintzen duten kontzertu zikloa. Udazkenean eta neguan Arriaga antzokian eskaintzen zituen lehen kontzertuak, baina gaur egun Euskalduna jauregian izaten dira.

Ziklo horietara izen handiko zuzendariak gonbidatu izan dituzte: Enrique Garcia Asensio, Pablo Sanchez Torrella, Juan Jose Ocon, Dario Sotelo, Jose Maria Sainz

Alfaro, Gary F. Lamb, Ruper Lekue, Richard Miles, Thomas Rotondi, Hilario Exremiana, Evgeny Dzhahalov, Pablo dell'Oca eta Fernando Bonete, besteak beste. Era berean ospe handiko bakarlariak ere ekarri izan dituzte, Kepa Junkera, Astrid Crone, Manuel Bobenrieth, Javier Eguillor, Manel Ramada, Santiago Juan, Maria Eugenia Silguero, Euskadi Brass metalezko boskotea edo Oskorri taldea, besteak beste.



I. URTEURRENA

ANE PEREZ ALBERDI

1990-08-23 / 2009-09-23

*Zarauzko itsasoa orain politagoa delako...
eskerrik asko.*

Berriro elkar ikusiko dugun esperantzan...

Lagunak

Karlos Ansolak irabazi du 'Berria' egunkariko argazki lehiaketa

Baztan hotelean bi lagunentzako asteburu-pasa lortu du



Karlos Ansolak irabazi du *BERRIA* antolatutako Done Jakue bideari buruzko erretratu lehiaketa, eta bi lagunentzako asteburu-pasa bat lortu du Baztan hotelean. Ansolak esan du aspaldian zerabilela buruan noizbait Done Jakue bidea egitea, eta aurten animatu eta osatu duela bidea. Iparraldeko bidea egin du, baina Donibane Garazin hasi beharrean Orreagan hasi du ibilbidea, eta Finisterran amaitu.

Bidean egindako argazkia da *BERRIA*ko lehiaketara aurkeztu zuena, eta

aitortu du sariak "ustekabeen" harrapatu duela. Argazkilaritzarako zaletasuna beti izan duela adierazi du Ansolak, baina birritan baino ez dela aurkeztu lehiaketa batera. "*Noticias de Gipuzkoa* egunkarira bidali nituen oporraldian Marokon egindako argazki batzuk, hango sari potoloek erakarrita, eta hara bidali ostean, *BERRIA* egunkariko lehiaketan ere parte hartzera erabaki nuen, ia egunero hartzen dudana egunkaria delako", adierazi du. Castroje-risen atera zuen Karlos Ansolak argazki sariduna, Burgos eta Palentzia arteko lurretan.

Maialen Lujanbio eta Xabi Paia bertsolariek hasiko dituzte gaur Aiastia-San Migelgo jaiak

Gaur hasiko dira Aiastia-San Migelgo jaiak. 18:30etan izango da kanpai jotzea, eta ondoren, 20:00ak aldera, trikiti-bertso kalejira egingo dute, Ekaitz eta Arantza trikilariekin eta Maialen Lujanbio eta Xabi Paia bertsolariekin. Bertso afaria izango da, hala ere, jaietako lehenengo eguneko ekintza nagusia. 21:00etan batuko dira afaritarako, eta ondoren, disko festa izango da goizaldera arte, striptease eta guzti.

Zapatuan, artzai txakur txapelketa jokatu da, Euskal Herriko arraza libreko finala hain zuzen ere. Gauean, berriz, Borja Uzuriagaren oroimenez ekitaldi bat egingo dute Haritz dantza taldekoek, eta ondoren, Erromeria eta bolo txapelketen tartean izango da. Domekan, berriz, korrika saioa eta idi-demak izango dira eguneko ekitaldi nagusiak. 12:00etan hasiko da San Migelgo igoera, eta 17:00etan, idi demak. Eguna bukatzeko erromeria izango da Baltzola anaiekin. Hala ere, eguaztenean izango da Aiastiako egun handia: San Migel eguna, hain zuzen ere. Meza nagusiarekin hasiko dute eguna, eta ondoren bertso saioa izango da, Ziarda eta Mañu-kortarekin. Eguerdian, berriz, pilota partidak jokatu dira, eta iluntzean, eta jaietako amaiera emateko, auzotarren afaria, Elustondo anai-arrebek girotuta.

Monologoak izango dira gaur Herriko Antzokian

Migel Lago eta Quique Maciasen monologo saioak entzuteko aukera izango da gaur Herriko Antzokian, 22:15etatik aurrera. Lojantzi tabernak antolatzen ditu monologoak, eta sarrerak 8,5 euro balio ditu. Txartelak Lojantzi tabernan bertan nahiz txarteldegian erosi ahal izango dira.

Elgoibartik eta Mendarotik Kilometroetara joateko autobusak antolatu dituzte

Pasaia-Lezon ospatuko da aurten Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiak, urriaren 3an, eta Elgoibarko Izarrak eta Mendaroko Udalak autobusak antolatu dituzte. Elgoibarko autobusak Sigmako aparkalekutik irtengo dira, 9:30ean, eta 20:00etan itzuliko dira Lezotik. Interesatuek Elgoibarko Izarran eman behar dute izena, irailaren 30a baino lehen. Txartelak zortzi euro balio ditu Elgoibarko Izarrako bazkide direnentzat, eta hamar euro gainerakoentzat. Mendaroko autobusa, berriz, 9:30ean irtengo da tren geltoki paretik, eta 20:30ean itzuliko da handik. Txartelak udaletxean eta Morroskillo dendan dituzue salgai, bost eurotan.

Garuneko paralisari buruzko hitzaldia Sorraluzen, gaur zortzi

Garuneko paralisia duten haurrei laguntzeko teknika aitzindari baten berri emango du Alexey Reptunov ziru-jau, traumatologo eta ortopeda errusiarrek. Fibrotomia graduala edo Ulzibat doktorearen teknika izenez ezagutzen da teknika hori, eta lehen aldia da Euskal Herrian aurkeztu dutela. Munduan bost zirujau bakarrik erabiltzen dute, eta hari esker asko hobetu daiteke garuneko paralisia dutenen haurren bizi-kalitatea. Hitzaldia gaur zortzi izango da, Kiroldegiko zine aretoan, 19:30ean.

Karakateko mendi bizikleta irteera antolatu dute urriaren 12rako

Ibilbide luzea edo motza izango dira aukeran

Mintxetako BTT zentroak eta Debegeesak Karakateko mendi bizikleta irteera antolatu dute urriaren 12rako. Partaideek 25 kilometroko ibilbidea egitea edo 45 kilometrokoa izango dituzte aukeran, eta bidean zehar abituallamentu postuak izango dituzte, indarrak berreskuratzeko. Intersatuek urriaren 5era arte daukate izena emateko epea. Hala ere, plazarik gertzen bada, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukerarik. Federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 15 euro. Informazio gehiagorako 943 820 110 telefonora deitu.



Gredosera irteera antolatu du Morkaikok urriaren 9rako

Morkaiko mendizale elkarteak Gredosera (Avila) irteera antolatu du urriaren 9tik 12rako. 25 urtetik beherakoek 120 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 130 euro. Elkarteko bazkide ez direnek 10 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzi daiteke.

Jon Agirrebeñak bosgarren postua eskuratu du Urretxuko duatloian

Urgazi taldeko Jon Agirrebeña elgoibartarrak bosgarren postuan amaitu zuen Urretxuko herri duatloia, 41:18 denborarekin. Lasterkariak hiru kilometro egin zituzten korrika lehenengo. Ondoren, 12,5 kilometro bizikletan eta proba amaitzeko 1,5 kilometro korrika. 49 gizonen eta bost emakumeen hartu zuten parte guztira.

Urriaren 1ean amaituko da tenis ikastaroetan izena emateko epea

40-15 elkarteak tenis ikastaroak antolatu ditu ikasturte berrirako, eta urriaren 1ean amaituko da izena emateko epea. Adinaren arabera antolatuko dituzte taldeak, eta lau maila bereiztuko dituzte. Ikastaroek urritik ekainera arte iraungo dute. Informazio gehiago ondorengo telefonoetan. 637 990 159 / 696 577 872 / 670 665 797.

'Mugituko da' kirol martxa 16:00ak aldera iritsiko da


Mugituko da kirol martxa antolatu du Bergarako Jose Luis Elkoro Libre plataformak biharko. Jose Luis Elkoro aske uzteko eskatuko dute martxan. 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Hondarribiatik, eta Bergaran amaituko da. Elgoibarrera 15:55ak aldera iritsiko da.

Judo eskola ezagutzeko, ate irekien jardunaldia egingo dute bihar

Judoa ezagutarazteko asmoz, ate irekien jardunaldia antolatu du Egokran Judo eskolak biharko. 10:30etik aurrera, Usurbilgo Judo eskolakoek egingo dute judo erakustaldia, 4 eta 14 urte bitarteko umeentzako. Kirola egiteko arropekin joateko gomendioa egin dute antolatzaileek.

Auto telegidatuen txapelketa asteburuan

Auto Telegidatuen Espainiako Txapelketako proba jokatu dute asteburuan, Mendaron. Txapelketako hirugarren eta azken proba izango da. Zapatuan entrenamendu libreak egingo dituzte goizez, eta arratsaldean, sailkatze saioak jokatu dira. Domeka goizean jokatu dira finalurrekoak, eta 12:00etan izango da final nagusia. Guztira, 40 pilotu inguruk jardungo dute lehian, Osas Gain futbol zelaian.



I. URTEURRENA

ANE PEREZ ALBERDI

1990-08-23 / 2009-09-23

*Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen negar egin genuenean,
malko haiei esker orain itsasoa gara!*

Zure ahizpa Nerea

Arrieta eta Lariz, lehen hamarren artean, Euskal Lasterketa Bertikalen Kopan

Maite Maiorak bigarren egin du Uharte Arakilen

Haritz Arrieta eta Iñigo Lariz zazpigarren eta zortzigarren postuetan sailkatu dira, hurrenez hurren, Euskal Lasterketa Bertikalen Kopako sailkapen nagusian. Lau probak (Anboto, Txindoki, Azpeitia eta Uharte-Arakil Beriain) osatu dute aurtengo Euskal Lasterketa Bertikalen Kopa, eta hirutan lortutako emaitzarik onenak hartu dituzte kontuan azken zerrenda osatzeko. Arrietak proba guztietan hartu du parte, eta Larizek, aldiz, hirutan. Joan zen domekan Uharte-Arakil Beriainen egin zen proban ez zuen parte hartu.

Maite Maiora, bigarren

Maite Maiora mendaroarra, bestalde, bigarren postuan sailkatu zen Uharte Arakil-Beriainen jokatu zen proban, eta Azpeitiakoan, hirugarren postua eskuratu zuen. Beranduegi sartu zen Maiora Euskal Lasterketa Bertikalen Koparako lehian, eta azken bi probatan bakarrik parte hartu duenez, ez da sartu sailkapen nagusiko zerrendan.



Lagunak taldeko bi bikoteek irabazi egin dute Gipuzkoako Pala Txapelketako lehen jardunaldia

Lagunak pilota elkarteko bi bikote ari dira Gipuzkoako Pala Txapelketan parte hartzen, eta biek irabazi dute lehen jardunaldian: Joseba Etxeberria eta Jon Gallastegik Urretxuko bikote baten kontra jokatu zuten Ikastolan, eta 30-16 irabazi zuten elgoibartarrek. Eulogio Mancebok eta Unai Leiaristik, bestalde, Zumarragan jokatu zuten, eta 30-29 izan zen azken emaitza, elgoibartarren alde.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Arenas 1 (3. maila)
Mondragon 2 – Elgoibar 1 (Pref.)
Elgoibar 3 – Euskalduna 0 (Ohorezko jub.)
Elgoibar A 6 – Elgoibar B 0 (Kad.)
Elgoibar 3 – Anaitasuna 0 (Ohorezko inf.)
Ordizia 2 – Elgoibar 1 (Txiki)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Lagunak 12 – Ilunpe 22 (1. nag.)
Murumendi 22 – Lagunak 12 (1. nag.)
Lakke 22 – Lagunak 14 (3. nag.)
Lagunak 7 – Mundarro 22 (1. jub.)
Usurbil 22 – Lagunak 8 (2. kad.)
Pala
Lagunak 30 – Goierri 16 (3. nag.)

AGENDA

SASKIBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 26
12:15 Gabi – Soraluze (Sen.mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25
11:00 Elgoibar – Arrasate (Inf. Txiki)
12:30 Elgoibar – Eibartarrak (Kad. B)
17:00 Elgoibar – Euskalduna (Pref.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 25
10:30 Elgoibar – Arrate (Inf. neska)
12:00 Elgoibar – Arrate (Inf. neska)
Domeka, 26
9:45 Elgoibar – Arrate (Inf. mut.)
11:00 Elgoibar – Arrate (Inf. mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 24
21:15 Lagunak – Bergara (3. Kad.)
22:00 Lagunak – Alde Zaharra (2. Kad.)
22:30 Lagunak – Beloki (3. nag.)
Domeka, 24
11:00 Lagunak – Zazpiturri (Jub.)
11:30 Lagunak – Ilunpe (1. nag.)
12:00 Lagunak – Usurbil (Pala)

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **645 557 141**
- Mutila lanerako prest. Portalak edo baserriak garbitzeko edo kontserje lanetarako. ☎ **645 555 265**
- Neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsalde. ☎ **677 155 611 (Anabel)**
- 32 urteko neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 212 449**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 234 612 / 671 476 869**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **666 771 701**
- Neska nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Mutila sukaldari laguntzaile edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Mutila lorezain, sukaldari laguntzaile edo igeltsero lanak egiteko prest. ☎ **688 647 664**
- Neska euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gauetz nahiz egunez. Klinika Laguntzaile titulua dut. ☎ **943 748 209**
- Neska gaztea umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **652 446 228**
- Boliviako bikotea nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Papelak ditugu. ☎ **661 344 028 / 661 343 549**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **649 663 091**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **665 513 851**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **626 490 986**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **637 966 749**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 025 810**
- Mutila baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo sukaldari laguntzeko prest. ☎ **686 077 316**
- Mutil arduratsua nagusiak zaindu, banatzaile lanak edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **671 368 324**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Astegun eta asteburuetan. ☎ **646 821 678**
- Mutila nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 154 706**
- Gizona lantegian lan egiteko prest. Elektrikari ikasketak ditut. ☎ **652 779 800**
- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **617 388 554**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638 338 816**

- Mutila nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interno edo orduka. ☎ **616 260 793**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **666 771 701**
- Gizona peoi, elektrikari edo pintore lanak egiteko prest. ☎ **606 612 834**
- Emakumea nagusiak zaintzeko, sukaldari edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **688 633 463**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Mutila nagusiak zaindu, banatzaile lanak edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **671 368 324**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 234 612**
- Mutila lorezain, sukaldari laguntzaile edo igeltsero lanak egiteko prest. ☎ **626 752 558**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **671 476 869**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **669 311 385**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**

ESKAINZA

- Tabernan lan egiteko pertsona behar da. Astean hogei ordu. ☎ **628 528 268**
- Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Hogei ordu astean. ☎ **696 178 695**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943 743 196**
- 25 eta 40 urte arteko mutil euskalduna behar da komertzial arloan lan egiteko. ☎ **685 714 572**
- 2. mailako pintore ofiziala edo pintoretzarako ikasten ari den bat behar da. ☎ **648 210 852**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. Mendarokoa naiz. ☎ **687 075 555**
- Hiru edo lau logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699 813 826**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **618 149 535**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **600 221 704**
- Etxea alokatzen dut. Hiru logela eta garajea erabiltzeko eskubidea. ☎ **648 978 370 / 678 803 535**
- Neska gazteak pisua konpartituko luke alokairuan. ☎ **618 149 535**
- Errosario kalean etxebizitza alokagai. 110 metro koadro. Altzariekin. ☎ **943 742 034 / 639 353 331**
- Etxea salgai Elgoibarren P. Muguruza etorbidean. Hiru logela, egongela, sukaldaria eta bainugela. Egoera onean. ☎ **943 082 682 / 688 658 183 (Maite)**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Plaza Handitik gertu. ☎ **672 42 22 37**
- Karabana eta autokarabanentzako garaje plazak saltzen dira. Plaza mugatuak. Erdigunean. Sarrera egokia. Finantzaketa aukera. ☎ **605 713 012**
- Renault Space bat salgai. diesela, 99 urtekoa, kilometro gutxi ditu, eta oso egoera onean dago. ☎ **607 584 011**

PARTIKULARRAK

- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ **943 744 206**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak emango lizkieke LHko umei. ☎ **665 759 849**
- Ingelesa ikasteko partikularrak ematen ditut. ☎ **679 113 446**
- DBHko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona behar da. ☎ **652 763 264**

BESTELAKOAK

- Hiztegi enziklopediko unibertsala (hamar tomo) eta animalien bideo bilduma (VHS, hamar zinta) oparitzen ditut. ☎ **699 173 635**
- Padelean jokatzeko pala oparitzen dut. ☎ **669 022 573**
- Ezinduentzako garabia salgai. ☎ **661 304 260**
- Umearentzako sehaska oparitzen dut. ☎ **676 889 260**



I. URTEURRENA

JULIAN VILLENA MONSALVE

2009ko irailaren 27an hil zen, 78 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 25, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





• Zorionak, gure realzaleari! 4 urte! Mirenen partez, muxu txuri potolo bat, eta Maiteren partez, pa urdin erraldoia.



• Zorionak, **Nerea**, atzo 8 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Ainhoaren partez.




• Zorionak, **Diegol** Ondo pasa zure 10. urtebetetze eguna. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Uxue**, 2 urte egin dituzulako. Danelen eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Alain**, domekan 8 urte egingo dituzulako. Amama, izeba Luisa eta aitaren partez.



• Zorionak, **Danel**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Lau muxu handi, etxekoen partez.



• Zorionak, **potoli**, 4 urte egin dituzulako. Ondo pasa! Patxito handi bat Naroa, June, Marina eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Jon eta Aitor**, zuen bosgarren urtebetetzean, Elgoibartik eta Zestoatik.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Zorionak, **bikote**. Oso ondo pasa zuen egunean. Zoriontsu izan! Koadrilakoen partez

OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



Zorionak, **Petri eta Pako**, zuen urtebetetzean. Familiakoen partez.

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegia eta ardaudegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

OKINDEGIA

26 domeka EIZAGUIRRE

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 24 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 25 Fernandez
Goizez, Garitaonandia-Bidasolo
- 26 Fernandez
- 27 Yudego
- 28 Zabaleta
- 29 Etxeberria (*Errosario*)
- 30 Ibañez
- 1 Garitaonandia-Bidasolo

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638


Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



24 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Ikuskizuna

22:15 Monologoak

Lojantzi tabernak antolatuta, monologoak entzuteko aukera izango da Herriko Antzokian.

25 zapatua

Feria

10:00 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Nafarroa Plazan, eta ganaduzaleek Plaza Txikian jarriko dituzte abereak. Elgoibarko Kale Kantariak arituko dira kaleak kantuz alaitzen. 12:00etan irtengo dira kantariak Nafarroa Plazatik.

Kirola

10:30 Ate irekien jardunaldia

Olaizaga kiroldegian

Egokran judo elkartearen ezagutze-ko aukera izango da.

Plaza Txikia

12:00 Txarlatana

Kale saltzaile berrituaren saioa. Plaza Txikian.

Musika

22:00 Bilboko Udal Musika

Banda

Bilboko musika bandaren kontzertua, Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurreneko ekintzen barruan. San Bartolome parrokiaren.

26 domeka

Autobusa

9:00 Bat Egin eguna

Bat Egin eguna ospatuko dute Altsasun, eta hara joateko autobusa irtengo da Txankakuako geltokitik.

Kirola

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek, irakasleek eta umeek Pagoetara egingo dute irteera.

27 astelehena

Erakusketa

19:00 Plaza Txikia

Plaza Txikiko erretratu zaharrei buruzko erakusketa zabalduko dute Kultur Etxean. Urriaren 3ra arte.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 24
Udaldiari agur-festa 17:00

ASTELEHENA 27
Gorputz espresioa 17:30

MARTITZENA 28
Tenis txapelketa 17:30

EGUAZTENA 29
Bingoa 17:30

EGUENA 30
Kanpo jolasak 17:30



GAZTELEKUKO EKINTZAK

**UDALEKUETAKO
LIPDUB-A PREST DAGO!
UDAKO ABESTIAZ
GOZATU NAHI?
SARTU ONDORENGO
TITULUA YOUTUBEN: LIPDUB
2.0 WAKA-ETXARII EDO
SARTU www.elgoibar.org
EDO www.elgoibarren.net
WEBGUNEETAN, ETA GOZATU!**

«London river» (Ongarri zine-kluba)

25, zapatua: 19:00/22:15

26 domeka: 19:00

27, astelehena: 21:30

Erresuma Batua-Aljeria-Frantzia, 2009. Zuz.: Rachid Bouchareb. Akt.: Brenda Blethyn, Sotigui Kouyate. 87 min.

Emakume britainiar bat alabaren bila dabil, eta Afrikako gizon bat, semearen bila, 2005eko uztailaren 7ko atentatuaren desagertu baitira.



SAN MIGEL JAIK 2010

24 BARIXAKUA

GAZTEEN EGUNA

18:30 Kanpai jotzea

Jaien hasiera adierazteko.

20:00 Triki-bertsoko kalejira

Ekaitz eta Arantza trikitilariekin eta Maialen

Lujanbio eta Xabi Paia bertsolariekin.

21:00 Bertso afaria

Ondoren, disko festa eta striptease-a.

25 ZAPATUA

17:00 Artzai txakur

txapelketa

Euskal Herriko arraza libreko finala.

22:30 Haritz dantza

taldearen ekitaldia

Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, erromeria

Kupela taldearekin

1:00 Bolo txapelketa

26 DOMEKA

11:15 Meza

12:00 San Migelgo korrika igoera

Ondoren, trikitilariak

Baltzola Anaiak bikotearen ekitaldia.

17:00 Idi-demak

Ondoren, erromeria

Baltzola anaiekin.

29 EGUAZTENA

11:30 Meza

Ondoren, bertso saioa

Ziarda eta Mañukortarekin.

13:00 Pilota partidak

Kepa-Loiola /Arribillaga-Lizarralde

Ondoren, trikitilariak

Elustondo anai-arrebak.

20:30 Auzotarren afaria

Ondoren, erromeria

Elustondo anai-arrebekin.



MOTORREN KONTZENTRAZIOA

25 ZAPATUA

19:00 Haurrentzako

motorrak

Molto motorren lasterketa.

Ondoren, motor zaleen ibilaldia

Herria zeharkatuko dute, eta segidan, errepidera irtengo dira.

21:00 Afaria

Leku Ederren.

23:00 Kontzertua

Señor Maligno taldearekin, Madalan.

26 DOMEKA

9:00 Hamarretakoa eta izenematea

Leku Ederren.

11:30 Motor zaleen jaialdia

Herria zeharkatuko dute, eta segidan, errepidera irtengo dira.

13:00 Motorren

erakusketa

Plaza Txikian.

14:00 Bazkaria

Leku Ederren.



HAZTEN



Errasario 20, Elgoibar
Tel: 943 747 347
hazten@hotmail.com

ZATOZ
eta
IKUSI!



- Emakumeentzako taila bereziak (42tik 62ra)
- Umeak (0-18 urte)

ANTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3. sotoa 943 74 36 52 - 74 27 88

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

URKIDI
AHOLKULARITZA



Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Erretratu zaharra



1949

Aste honetako erretratua herritar batek ekarri du BARRRENEKO erredakziora. 1949ko apirilean ateratako argazkia da. Egun hartan San Rokera joan ziren argazkiko neska gazte hauek, egun-pasa. Lagun artean irteerak egiteko ohitura zeukaten, eta han eta hemen ibiltzen ziren, umore onean. Ume-umetatik ziren lagunak, eta gaur egunera arte eutsi diote adiskidetasun horri. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak. **Atzean, zutik:** Maria Barrutia (†), Nieves Gabilondo, Lucia Gabilondo, Miren Vallejo eta Arcadia Gabilondo (†). Erdiko ilaran: Maria Oteiza (†), Guada Mujika eta Begoña Latxa (†). **Behean, eserita:** Maruja Anton eta Pepita Unzueta.



II. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Badira bi urte ikusten ez zaitugula
baina badakigu egunero
gurekin zaudela
eta datorren urriaren 18an
12 urte egingo dituzula.
Muxu bat, Nora maitea.*

Aita eta ama

CURSO 2010-2011 IKASTURRIA
MATRIKULA ZABALIK
MATRICULA ABIERTA

www.udal.euskaltegia.net

Euskara ikasteko bide zuzena
Tu vía al euskera



UDAL EUSKALTEGIAK
EUSKALTEGIAK
EUSKALTEGIAK

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Errepublikan
20870 ELGOIBAR • Tel./Faxo: 943 74 27 31
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

IKASTAROAK

- Aurrez aurrekoak /presenciales
 - 2, 3 edo 4 egun astean
- Autoikaskuntza Internet bidez /autoaprendizaje

IKASTARO BEREZIAK

- Enpresak
- AISA (Etorikinak) /inmigrantes
- Merkatariak eta ostalaritza

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak (TITULU OFIZIAK)
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

irailaren 24ra arte (hasta el 24 de septiembre)

DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

Informa zaituz euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30



EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

BARRENen aldeko **BONOAK** erosteko:

- BARREN astekarian (Nafarroa plaza)
- Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)
- E-postaz eta telefonoz:

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Bonoa erosten duten guztien artean,
Belaustegi jatetxean bi lagunentzako
dastatze-menua zozketatuko dugu

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaudete?
Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan
estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Ni ere banaiz
BARREN!





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Aslma

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillion 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorzaintza

Pagoa loradenda
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76 / 608 774 032



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

